

Bakea Madrilen

El Mundo del País Vasco, 1991-11-01.

Herenegun ikus ahal izan nuen nire egongelatik "Madrileko Bake Konferentzia"ren hasiera. Bush eta Gorbachov-ek bere gailurraren jarraian eman zuten prentsaurrea; orain gutxi arte arerio itzelak izan ziren bi potentziako gidariek, elkarrizketa luzearen xehetasunak ematen; eta gero, aurrean eserita zeuden kazetari zorrotzek egin zizkioten galderei irripartsu erantzuten; eta esanez, gainera, mundua konpontzeko elkar egin behar zutela, eta ez orain bestetan bezala, beraien aginduz, baizik eta borrokan dabiltzen judu eta palestinar eta inguruko beste zenbait mairuen arteko arazo larriak bere artean konpontzeko bidean jarri nahiz. Atentatuak tarteko, jarraitu egin behar dutela pakegintzan. Bakea behar dela... Eta neuk, nirekiko, mairuak baginake! Eta kezkatu, kazetaria mozarrotuta norbait ustekabean agertuko den beldur... Beldur neu, zeren eta hor amaituko bailitzateke Madrileko Bake Konferentzia!... Halere, honela, porrotik gabe, bukatu zen prentsaurrea, eta badirudi Bake Bidea aurrera doala oraingoz... itxaropenak ere badaudela hainbeste urtetan gertatu ez dena gertatzeko, eta Madrilen!... Nire ondoan eserita dagoen zortzi urteko bilobatxoa, eztultxo batzu direla, eta asteartean ikastolara joan gabe, eta galdezka niri, ea zergatik etorri diren mundu osotik bakegintzara... hau dela bidenabar bertoko bonbak eta hilketak konpon arazteko parada, "e, aitona?", galdetzen du haurrak niri begira, gerraz kexa asko entzuten baititu etxean... Eta neu beldur, oraindik, kazetariaren maskara intelektualarekin Corcuera jauna agertuko ote den, erreguka, otoi!... Bestela, akabo bake Konferentzia!